

Amarako Ahotza

2011ko Martxoak 25, Ostirala

Amaratar Egunkaria

Donostian, MMXI. urtea, 1 Zbk.

ERAKUSKETA

Amarako historia laburrean

Erakusketa honek aurpegia, ahotza eta kontaketa jarri die Amara eta bere bizilagunei denobarn zehar, gaurko eguna arte. Argazkiak, planoak, elkarriketak eta objektuak denon artean gauzatutako auzoaren abentura honetara gerturatzeko bideak dira, baina baita abentura hori ahalbidetu duten guztiei omenaldia egiteko modua.

Javier Sada

Santiagoko erriberak eta lehen Amara

Amara auzoaren historia Uru-mea (ur mehea) ibaiari lotuta dago, duela mende bat arte gaur egungo zabalgunearen zatirik handiena betetzen zuena. Urrun da egungo lurraldea ibaiaren bokalea zenaren garaia.

XVI eta XVII. mendeetan eremua lehortu egin zen ibaiaren bidea gaurko auzoaren ertzer mugatzeko eta honen ondorioz sortutako padurak laborantzarako lur bihurtzeko.

“Loiolako erriberak” izenagatik ezaguna zen eremua bitan banatu

ezagutu zuenean, “Amara” base-riaren inguruan (gaurko Amara kalearen parean) ibaiari irabazten joan zitzaion lurraldea Amarako zabalgunea bezala hasi zen ezaguna izaten. Horrela jaio zen jatorrizko Amara (gaur egun Amara Zaharra donostiar gehienek ahotan). Ia mende bat geroago, 1950eko hamarkadan, Centenario plaza eta Anoeta bitarteko eremuari Amarako Zabalgunea edo Amara Berri izena eman zitzaion.

Hirigintza proiektu ezberdinak

Amarako zabalgunea 1895ean hasten da, Nemesio Barrio eta Jose Goicoa arkitektoek Udalari memoria bat aurkezten diotenean

tzeko lehiaketa baten deialdia egin zen, aurreko urtean Horacio Azquetak aurkeztu zituen ideien arabera.

Bi proiektu aurkeztu ziren: Horacio Azqueta eta José Gurruchagarena eta Eugenio Vallarinorena. 1922an biak onartu ziren, baina Azqueta eta Vallarinorenari eman zitzaion lehentasuna.

Bi urte beranduago, ordea, eta martxan zirenean, Juan Machimbarrena Udalako arkitektoak lanak geldiarazi zituen.

1926an Urumea ibaia gaur duen bidetik desbideratu zen, eta urte batzuk beranduago beste lehiaketa baten deialdia egin zen, Machimbarrena bera eta Gaiztarro aurkeztu zirelarik. 1940an, gerraren ostean, Proiektu hau onartutakoa ber- tan behera geratu zen.

zuen, hiru fasetan banatuz: lehen, Stadium Etorbidearena (Madrilgo Etorbidea) Anoetaraino bigarrena, Urumea eta trenbidearen inguruko lurraldearena, eta hirugarrena Centenario plazatik Pio XII plazaraino.

Zabaltze berriaren lehen pausuak

1940ko hamarkadaren amaieran lehen etxea eraiki zen, “Topo” geltokiaren ondoan, trenbide-pasagunearen parean. Segidan, 1950eko hamarkadan, Amara parketik hasita, zabalgunea berri gauzatzen joan zen.

Laister geratu ziren atzean Amaran ospatzen ziren nazioarteko auto eta motorren laisterketak edo San Juan herri festak, Centenario plazatik Antso Jakituna etorbidea eta Pio XII plazara pasa zirenak, eta gero handik Burdin zubira.



zen, 1864an trenbidea eraiki zenean, “Santiago erriberak” izena jasoaz bitako erdi batek, gaurko Catalina de Erauso kalearen parean zegoen “Santiago” baserri- gatik.

Aintzinako erriberen lehen eraikin ezaguna itsasaldiko “Errota Berri” errota da. Laister baserri gehiago agertu ziren eta haien zenbait izen egungo kale eta plaza- tan dute islada. 1870eko hamarkadan, Donostiak Cortazarren zabalgunea (Zumardia-Etorbidea)

lurraldea errekuiperatzeko (zailtasunez betetako bidea, batez ere zatirik handiena pribatua baitzen).

Lau urte beranduago Marcelo Sarasola injinieruak aurkeztu zuen proiektua, 1905ean onartutakoa zena, María Cristina eta Burdin zubien artean Urumea bidera-tzeko.

Idea hau asmo handikoa zen, Santiagoko erriberetatik ura kentzea suposatzen baitzuen, baina aurrera egin zuen eta 1914ean auzo berriaren hirigintza diseina-



Auzo berrian 20.000 biztanle aurreikusten ziren, parke handi bat, lorategi-hiri bat tranbiaren burdinbidearen ondoan, etxadi irekiak, arkupedun plazak eta laugarren zubi bat Pio XII eta Mundaiz komunikatzeko. Baina Donostiako 1962ko Hiri-Antolamendu Planak proiektua aldatu

Donostiako motor sariak Amarako zabaltzearen lehen publiko handiko jarduerak izan ziren. Alkatearen gutunak argitaratu ziren ere, enpresen jabeek zuzenduak, langileek laisterketara joateko baimena izan zezaten. Zirkuitua Madril etorbideak, Zorroaga pasealekuak, Kortsarioen

Amarako Ahotsa

2011ko Martxoak 25, Ostirala

Amaratar Egunkaria

kaleak, Bizkaia pasealekuak, Antso Jakituna etorbideak eta Pio XII plazak osatzen zuten. Juan Kutx donostiarra zen protagonista, "Triumph" bat gida-tzen garaiko fabrikatzaile onenekin lehian: "Lube", "Montesa", "Peugeot", "Guzzi", "Rudge", "B.M.W.",

hun txirrindulariak Madril etorbidetik pasa ziren.

Louis Caput frantziarrak irabazi zuen sprint-a. 1973an Munduko Txirrindularitza Txapelketa estali berria zen belodromoan ospatu zen. Bertan Kierzkowski polo-



"Harley"... "Side-cars"-en laisterketak ziren arrakastatsuenak.

Santiago baserria eraikuntza berriek "irentsi" zuten, eta berarekin batera Anoeta inguratzen zutenak ere desagertu ziren 1950ean Kirolaren Hiria eta hogeitau urte geroago Sahiesbidea eraiki zirenean.

Kirolaren Hiria

Azkenean ez zen gauzatu Ikasketen Hiria Institutuak inauguratu zirenean, baina zabalgunea bere eguneroko bizitzan sendotuz zihoan Rex eta Astoria zineekin, Familia Santuko elizarekin edota Kirolaren Hiriarekin, beste batzuen artean.

Azken honi eraikin berriak erantsi zitzaizkion urteen heinean, hala nola, belodromoa, frontoiak... 1993an Anoetako Estadio berria inauguratu zen, Realaren zelaia bilakatzen zelarik.

Kirol ekipamendu hauek maila nazionala, nazioartekoa eta mundukoa duten jardueren eszenatokia izan dira gaur arte, eta Amara izena ezagutzera eman dute. Kirolarekin lotutako jardueren artean hauek aipatu daitezke, beste askoren artean: 1949ko uztailaren 9an Bordele - Donostia Tour-aren etapan parte hartzen zuten berre-

niarrak erloju kontrako kilometroaren lehen urrezko domina irabazi zuen. Maila internazionalako atletismo lehiaketa ugariak gain, 1970an Anoeta frontoian (gaur Atano III) ospatu zen Munduko Pilota Txapelketa aipatu daiteke ere, Francoren aurrean Joseba Elósegui su hartuta salto egiteagatik.

Bederatzi urte beranduago, 1979an, Amarak milaka ikusle bilduko ditu Euskadiko Sei Ordukin.

Txirrindularien lehiaketak musika kontzertu eta herri kirolen erakustaldiak tartekatzen ziren. 2005 eta 2006ko etenaldiaren ostean, Belodromoaren berritzea zela eta, 2007an ospatu ziren berriro Sei Orduak, baina ez zuten berriz publikoaren arreta erakarri, eta 2008an Donostiak bere kirol jardura berezietako bat galdu zuen.

Kontzertuak

Kirolarekin batera, musika da Amara izenarekin lotuta dagoen mundua. Antonio Elorza belodromoan, José Antonio Gasca kiroldegian eta Anoeta Estadioan eginiko kontzertuek Amara Europako eszenatoki garrantzitsueneko bat bilakatu dute. 70ko hamar-

kadatik gaur arte Donostiaeraekarri dituzte abeslari eta talde garrantzitsuenak.

Auzoaren sendotzea

Urteak pasa ahala eta biztanlegoaren hazkundearekin (Udalaren duela gutxiago datuen arabera 25.618 bizilagun: 13.890 emakume eta 11.728 gizonezko), Amara Berri urteetan izan duen integrazio falta puntua gaintzen joan da, bere auzotar gehienek jatorria hiriko beste auzoetan baitzegoen.

Nortasunaren sendotze honi dagokionez, derrigorrezkoa da pertsona eta elkarte sozial, kultural eta herrikoi askoren lana azpi marratzea, gogoz eta askotan ia hutsetik egindako bere ahalegina-gatik, herria eraikitzearen irrikak bultzatuta, batez ere.

kokatzen dena, Donostian tanke-ra honetako ekimenak koordinatzeko asmoa duen proiektua.

Oraingoz "Amarauna"-k hiru ildo nagusi ditu: Ernest Lluch kultur etxeko liburutegian eta internet bidez kontsulta daitekeen ondare dokumentalaren bilketa (nagusiki grafikoa); amaratar ezberdinei eginiko elkarrizketen grabaketa, haien bizipenak eta iritziak jasotzeko, eta jardura ezberdinak garatzea (erakusketak, hizketaldiak, belaunaldien arteko tailerrak...), proiektuaren helburuen betetzea bilatzen dutenak.



Lan honek fruitua izan du, eta lehen agian arrotz sentitzen zen biztanlegoak "bere" auzoa bezala amaitu du ikusten Amara Berri, bertan jaio diren belaunaldi berriek lagunduta.

Amarauna

"Amarauna: auzoa eraikitzen / construyendo el barrio" erakusketa "Amarauna" proiektuaren baitan sortu da. Proiektu honen helburuak honakoak dira: Amarako iragana eta orainaren ezagutza indartu, auzoarekin zerikusia duten gaien inguruko eztabaida bultzatu eta eragile ezberdinen arteko harremanak sendotu.

Elkarlanean oinarritutako aha-legina da beraz, ardatz bezala partaidetza duena, eta "Hiriko ahotsak" programaren barruan